

Haur-pobretasuna, ahaztutako arazoa

Adin txikikoaren goi-mailako arretaren oinarria, osoko garapena, bizimodu duina, bete-betean bizitzeko eta ahalik eta ongizaterik handiena lortzeko baldintza material eta afektiboak bermatzeari begira dagozan jarduera eta prozesuen multzoa da. Oinarri honen menpe dagoz administrazio, gizarte eragile eta herritar guztiak.

Herrialde demokratikoen legerietan (esate baterako, Espainiar Konstituzioaren 39. artikuluan) jasota dago, baina gauzatzea arazoz beteta egoten da eta batzuetan "goi-mailako arreta" hori zalantzan jarten da.

Pobretasuna eta gizarte bazterketa da haurtzaroan eta nerabezaroan beren-beregi eta indarrez arrastoa izten daben eragileetako bat. Egundoko oztopo da umeen eta nerabeen eskubideak bermatzeko.

Pobretasuna eta bazterketa jasaten daben ume eta nerabeen profila

Bizi-baldintzen inguruko 2019ko galdeketa ikusi daitekenez, pobretasun eta gizarte bazterketaren urteko indizea jatsi egin zan adin-talde guztietan ume eta nerabeen (-16) izan ezik, eremu hone-tako indizeak 2008ko krisiaren hasierako maila beretsuetan jarraitzen daualarik. 2019an, Espainiako umeen %30,3a pobretasunean edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan egozan. Eta horreen arteko %15a pobretasun larrian dago. 2020ko galdeketa 16 urtetik beherako %31,2a (0,9 puntuko gehikuntza) pobretasuna jasateko arriskuan egoala erakusten eban.

Ikusten danez, urte gehiago dabenak babestuago dagoz pobretasunaren aurrean, izan be, esate baterako 65 urtetik gorakoan artean, pobretasuna jasateko arriskuan egozanez indizea %15,7koa zan. Hamabost puntu inguruko aldea adin-multzo babestuenaren (+65) eta ahulenaren (-16) artean.

Txirotutako adin txikikoen oinarritzko beste ezaugarri bat euren jatorria da: adin txikiko espainiarren %21ak jasango leuke pobretasuna baina kopuru horrek

%54raino egiten dau gora europar alkartetik kanpoko ume atzerritarren kasuan. Aldea ikaragarria da, 33 puntukoa.

Pobretasunaren eragina adin txikikoen artean nabarmenagoa izateak seme eta alabak euren ardurapean dabezan familiek, batez be familia ugariak eta gurasobakarrak, jasate dabezan ekonomiazailtasunak erakusten ditu. Pobretasuna jasateko arriskuan dagoan adin txikikoaren profila are gehiago zehaztuz, kaltetuak, familia gurasobakarreko kide diran 11 eta 17 urte bitartekoa litzatekela ikusi daiteke.

Haur-pobretasunaren eta lan-merkatuaren arteko lotura

2008ko ekonomia-krisiak eta covid-19aren krisi honek ez dabe eragin bera izan haur guztiengan. Gurasoek lan-merkatuagaz daben lotura da bizitzako lehen urteetan pobretasunean jausteko izaten dan arriskuaren arrazoi nagusietakoa. Lotura estua dago lan-jarduera motela dauan etxean bizitzearen eta haur-pobretasuna jasatearen artean. Dana dala, lotura hau ez da ekonomia-krisiaren ondorio bakarra. 2008an, lan-jarduera motela eben etxeetan bizi

ziran umeen %71,7 pobreak ziran. Datu horrek aditzera emoten dauanez, lan-jarduera motela daben familietako adin txikikoek ekonomia-oparaldietan be jasaten dabe babesgabetasun hori. Osera, guraso biek bizi diranean eta guraso biek lan egiten dabeanean, umeek babes gehiago izaten dabe.

2014tik aurrera pobretasunaren hasieran dagozan pertsonak kopuruak behera egin badau be, muturreko pobretasuna ez da gixitu, ezta lan-jarduera motela daben familien kopurua be. Itxura batean, aitek eta amek lan-merkatuan parte hartzea estu lotuta





dago ume eta nerabeen bizi-baldintzakaz.

Oinordetzan hartutako pobretasuna

Pobretasuna oinordetzan hartzen dan eragilea da, horra hor, gertaera deigarria. Alde handiak dagoz errentari dagokionez familietan eta errentaren menpe izaten da hezkuntzan aukera gehiago ala gitxiago izatea, batez be unibertsitateara joateari dagokionez. Gainera, errenta altuagoko familiek maila-igoera ahalbideratzeko eta laguntzarako sareak eskaintzeko bide diran gizarte loturak izaten dabez. Beste alde batetik, pertsona heldu pobretuei dagokionez, askok eta askok pobretasunezko egoerak bizi izan ebazan nerabezaroan edo 5 seme-alaba edo gehiagoko kide zan.

Eta pertsona heldu pobretuen artean, bada nabarmentzen dan beste profil bat be: haurtzaroa harrera-etxe edo erakunderen baten bizi izan ebenak helduaroan pobre dirala (bizipen hori izan ebenen %27,9a).

Eskola-porrota eta pobretasuna

Eskola-porrota familia pobretuetako adin txikikoen artean hedatuago egoteak pobretasuna belaualdiz belaualdi hedatzea dakar. Adsis Fundazioak 2013an egin eban azterlanean ikusi zanez, gizarte bazterketa jasateko arriskua eben DBHko nerabeen %61ak hiru irakasgai edo gehiago suspenditu eban, gainerakoan artean portzentajea %37a izan zalarik.

Ikasketak behar baino lehen izten dabezanen artean, gehienak mutilak dira (ikasketak bertan behera itzi ebezanen %62 mutilak ziran eta %38 neskek, 2018an, INE), etorkinak (jatorriz atzerrikoak diran adin txikikoen %37,6ak bertan behera izten ditu ikasketak, hemengoan %16,4aren parean, La Caixaren Gizarte Behatokiaren 2020ko txostenaren arabera), derrigorrezko ikasketen ostean beste ikasketarik egin ez daben gurasoak dabezanak (ezaugarri hau daben adin txikikoen artean, %30ak izten ditu ikasketak, IVIE

Institutuaren azterlanaren arabera: “El abandono educativo temprano: estudio del caso español”, 2013).

Nerabezaroa une bereziki kritikoa izaten da, behar baino lehen ikasketak izteak erabat baldintzatzen ditualako gerora lan-merkatuan sartzeko aukerak.

Pobretasunaren eraginak bizitzako aldi erabakigarrian

Haurtzaroko pobretasunaren arrastoak bizitza osoan antzeman daitekez eta pobretasunaren eraginak norbanakoaren garapen pertsonal eta soziala baldintzatu leike.

Askotariko gabezia materialak dakar beragaz. Honeek litzatekez gabezia horreek, maiztasunaren arabera ordenatuta: ezusteko gastuei aurre egiteko zailtasunak dabezan familiak; urtean astebeteko oporraldirik ezin igaro ohiko bizilekutik kanpo; etxean oinarritzotzat jotako 9 ondasunetik 4 ez izatea; etxeko tenperatura egokia bermatu barik izatea; ordenagailurik ez eukitea edo gitxienez egun biz behin haragi edo arrainik ezin jatea (azken hau Espainiako 373.000 adin txikikok jasaten dabe).

Heziketa- eta aisia-aukerarik ez izatea eta adin txikiko pobretuen estigmatizazioa be bizi behar izaten dabez gizarte bazterketan dagozanek.

Zer egin geinke haur-pobretasunari aurre egiteko?

- Sarrera urriak dabezan familien, familia ugarien eta familia gurasobakarren aldeko **babes-neurrien gehikuntza** eskatu agintari publikoei.
- Eskura doguzan bide guztietatik bazterketa jasaten dabenen aldeko **lan-ekimenak** bultzatu.
- Heziketa-maila guztietan **kalidadezko hezkuntza** jadesteko eskubidea bermatu daitela eskatu: doako lekuak eskaini herritar guztientzat Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan; derrigorrezko aldi, irakaskuntzaren kalidadea bermatu bitarteko eta irakasle nahiko eta egonkortasunez eskainiz, gizarte-heziketa beharizanak dabezan ikasleen zailtasunak aurreikusiz; leku gehiago eskaini Lanbide Heziketan; unibertsitatean desbaldintasuna eta bereizketa eragiteko bideak ezabatu.
- **Eskolaren eta alkarteko beste hainbat heziketa-zerbitzuen arteko itunak** egiten lagundu, gizartean egoera ahulagoan dagozan umei jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak eskaintzeko; alkarte eta gizarte zentroak sendotu.
- Babesgabezia jasaten daben umeen **familia harreragile** izateko aukera aztertu, ume horreen geroko garapenari begira, erakundeen babesetik familiaren babesera igaroteak eragin positiboa dauala egiaztatuta dago-eta.